

LIBURUKA

2018-2019



LIBURUKA izeneko irakurketa sustatzeko proiektua 2018-2019 ikasturtean gauzatzen ari da, Donostiako ikastetxeekin elkarlanean, eta lau programek osatzen dute.

1. Motxila txikia liburutegia, eskola eta familia lotzen dituen programa hau, Haur Hezkuntzako (3-5 urte) eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako (6-7 urte) ikasleei zuzenduta dago. Haurrak liburutegira joango dira liburuak aukeratzera eta liburu horrek ibilbide bat egingo du, liburutegitik etxera eta ondoren eskolara.

2. Irakurle gazteak egitasmoaren xede nagusia da Donostiako ikastetxeei liburutegietan mailegagari dauden liburuak eskaintzea. LHko (6-11 urte) eta DBHko 1. zikloko (12-13 urte) ikasleei zuzenduta dago. Liburutegiek proiektu honetarako hautatuak izan diren liburuak mailegatuko dizkiete ikastetxeei, bi hilabete t'erdiko epean ikasgeletan irakur ditzaten. Liburu mota desberdinak (albuma, narratiba, poesia, antzerkia, komikia eta ezagutza liburuak) bidaliko dira, euskaraz nahiz gaztelaniaz idatziak.

3. Itsaspeko bihotzak areto literarioa hiru astez egongo da ikusgai, azaroaren 13tik abenduaren 3ra, Konstituzio plazako Liburutegiko Mandas Dukearen aretoan. 8 eta 14 urte bitarteko ikasleei zuzenduta dago. Galtzagorri Elkarteak produktutako areto honek irakurtzeko zaletasuna sustatzeaz gain, genero berdintasuna lantzea du helburu, euskarazko haur eta gazte literatura oinarri hartuta. Aretoko saioaren ondoren edo aurretik, ikasleek Haur Liburutegia bisitatuko dute (Fermin Calbeton, 25). Saio guztiak bete dira.

4.- Etengabeko formakuntza Donostia Kulturako liburuzainei, haur eta gazte literaturaren inguruan. 2018an hiru ikastaro jasoko dituzte; lehenengoa udaberrian izan zen eta udazkenean beste bi ikastaro egingo dira, Irakurzaletasuna sustatzeko lantegia eta Explorando los materiales de lectura izenekoak, liburutegietara datozen hurrei, familiei eta irakasleei irakurketaren inguruko gomendiorik eta aholkurik egokienak ematen jakiteko.

+ **Info:** haurliburutegia@donostia.eus

LIBURUTEGIAK
BIBLIOTECAS
WWW.DONOSTIAKULTURA.EUS